



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEAk 100.000€-ko isuna jarri dio Bizkaiko abokatuena Elkargoari ofiziozko txanden eta guardia iraunkorreko txanden antolaketako merkatua banatzeagatik

Konstituzioak laguntza juridikoa bermatzen die herritar guztiei eta abokatuena Elkargoek ofiziozko txandak eta guardia iraunkorreko txandak antolatzen dituzte. Laguntza hori, diru publikoz finantzatuta gehienetan, abokatu gai guztiek ematea ahalbidetu behar da, arrazoirik gabeko muga barik.

Bilbo, 2017ko martxoaren 22a

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) abokatu baten salaketa jaso ondoren irekitako espediente baten ebazpena eman du. Abokatuak salaketa aurkeztu zuen Bizkaiko ofiziozko txandan eta guardia iraunkorreko txandan sartzea eragotzi ziotelako, nahiz eta Bizkaiko Elkargoko kidea izan eta Getxon eduki bulegoa, Madrilgo txandetan izena emanda zuelako.

Araudiak, bai Europakoak bai Estatukoak, zerbitzuetan eta jarduera ekonomikoetan aske sartzearen printzipioa ezarri du. Askatasun hori mugatu ahal da interes orokorreko helburu bat lortzeko nahitaezkoa denean bakarrik.

Bizkaiko abokatuena Elkargoak, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko legean ezartzen ziren betekizunez gain, honako hauek eskatzen zituen txanden antolaketan: txandari dagokion barruti judizialean bizitzea eta barrutian bertan izatea bulego "nagusia" eta inongo beste ofiziozko txandetan izena emanda ez izatea.

Betekizun horiek eskatzean Elkargoak Bizkaiko lurraldea zatitu egin du hainbat barruti judizialean, abokatuena barruti batean baino gehiagotan jardutea eragotziz, nahiz eta haien artean kilometro gutxi eta metroaren zerbitzua egon. Halaber, beste probintzia batzuetan jardutea eragozten du.

Eusko Jaurlaritzak 6 milioi euro baino gehiago erabili ditu 2016an Bizkaiko laguntza juridiko doakoa ordaintzeko.



LEAk ez-beharrezkotzat jo ditu betekizun horiek kalitatezko eta berehalakotasunezko zerbitzua emateko herritarrei, baita interes orokorraren aurkakotzat ere, ondoko datuak kontuan hartuta:

Abokatuak batez besteko 5 guardia egiten dituzte urtero eta 7 ofiziozko txanda. Batez bestekoak oso ezberdinak dira Barakaldoko eta Bilboko barrutien artean eta horrek bakarrik du azalpen bat: lurralde-banaketa.

Elkargoak alegatu egin du 1997ko ministro-agindu batek baimentzen diola bere jokabidea. Hala ere, ministro-agindu hori 2006ko Europako zuzentarauaren eta geroko lege batzuen aurkakoa da. Bestalde, Elkargoaren jokabidea murriztailegoa da aginduak babestuko zuena baino.

LEAk azpimarratu du Elkargoak baduela kontrol-sistema eraginkor bat zerbitzuaren funtzionamendu okerra zuzentzearen. Horren arabera, berehalako erantzuna ez badago, zerrendako hurrengo abokatuari deitzen zaio eta, zerbitzu txarreko kasu larrietan, abokatuari lanbide-jarduera eten ahal zaio.

Jokabide berdinetatik zehapen batzuk ezarri dira, hala nola Malagako Elkargoari –nahiz eta Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiak zehapena baliogabetu, betekizun batzuk arrazoituta ez egoteagatik-, Guadalajarako Elkargoari eta Abokatutzako Kontseilu Nagusiari.

Beste Elkargo batzuetan, ordea, ez dira eskatzen bizilekuko eskakizunik edo antzekori, hala nola Alcalá de Henaresko Elkargoan, Valentziakoan, Madrilgoan edo Kanariar Uharteetako guztietan.

LEAk uste du Elkargoaren jokabideak txandetan sartzea eragozten diela zerbitzua eman nahi duten abokatu gaituei eta merkatua zatitzen duela legeak debekatzen duen moduan. Horregatik guztiagatik, beharrezkoak ez diren eskakizunak deuseztatzea behartu du Elkargoa eta 100.000€-ko isuna ezarri dio.

Ebazpenak Bizkaiko txandetan sartzea ahalbidetuko dio salatzaileri, Bizkaiko Elkargoko kidea den eta Getxon bulegoa duen horri, baita legeak aurreikusten dituen kalte-ordainak eskatzea ere, Elkargoaren jokabideak horiek sortu badizkio.

Hauxe da ebazpen osoaren esteka:

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/es_resoluci/adjuntos/126_RESOLUCION_Colegio_de_Abogados_Bizkaia_web_es.pdf

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoei dagokienez.